DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

10740n XVII

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2024ko irailaren 24an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 24 de septiembre de 2024, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

**Erakunde Adierazpena, EH BILDU taldeak aurkeztua, azkeneko asteetako eraso eta ekintza xenofoboei buruzkoa.**

**Declaración Institucional, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los ataques y actos xenófobos de las últimas semanas.**

*“Azkeneko asteetan Donostian gizarte-ekintzako alorrean lanean dauden elkarte eta eragileek hainbat eraso eta ekintza xenofoboak salatu dituzte. Haien artean, etxerik gabeko migranteen aurkako erasoak (lo egiten duten lekuetan duten zaku eta ondasunak apurtu, irainak...), pertsona migranteen inklusioan lan egiten duten bolondres eta profesionalek jasandako mehatxuak edota espazio publikoan agertutako mezu arrazistak (Kontxako pasealekuan, Easo Plazan, Egian...), non pertsona etorkinen aurkako mezuak zabaltzen diren.*

*“En las últimas semanas, las asociaciones y agentes que trabajan en el ámbito de la acción social en San Sebastián han denunciado diversas agresiones y acciones xenófobas. Entre otras, agresiones a migrantes sin hogar (romper sus sacos de dormir y bienes en los lugares donde duermen, insultos...), amenazas sufridas por personas voluntarias y profesionales que trabajan en la inclusión de las personas migrantes o mensajes racistas aparecidos en el espacio público (paseo de la Concha, plaza Easo, Egia...), mediante los cuales se difunden ideas contra las personas inmigrantes.*

*Donostiako Udalaren zurrumurruen aurkako estrategiaren helburuak izanda gizarte inklusiboa, aniztasunari errespetua eta kulturartekotasuna sustatzea; jarrera eta diskurtso xenofobo eta arrazistak ekiditea etorkin eta errefuxiatuekiko aurreiritzi eta estereotipoakhautsiz eta kulturarteko begirada oinarri izango duten politika publikoak garatzea; gure erakundearen eta hura ordezkatzen dugun ordezkari politikoon ardura da jarrera eta ekintza xenofobo hauek irmoki salatzea.*

*La estrategia antirrumores del Ayuntamiento de San Sebastián tiene como objetivo promover una sociedad inclusiva; respetar la diversidad y la interculturalidad; evitar actitudes y discursos xenófobos y racistas mediante la eliminación de prejuicios y estereotipos hacia las personas inmigrantes y refugiadas; y el desarrollo de políticas públicas basadas en una perspectiva intercultural; por tanto, la responsabilidad, tanto de este Ayuntamiento como de sus representantes políticos, es denunciar y rechazar de forma tajante estas actitudes y estos actos xenófobos.*

*Era berean, hirian ematen ari den gatazkaren eta indarkeriaren espiralaren aurrean neurriak hartzea dagokigu, norabide horretan sortzen ari den tentsionamendua saihestearekin batera. Izan ere, egun hauetan hainbat sare sozialetan hiriko migratzaileen eta gizarte elkarteen aurkako ekintzak antolatzeko deia egin da, terminologia*

*Asimismo, debemos adoptar medidas ante el conflicto y la espiral de violencia que se está dando en nuestra ciudad, así como evitar el tensionamiento que se está produciendo en esa dirección. De hecho, a lo largo de estos días, en diferentes redes sociales se ha hecho un llamamiento para la organización de acciones contra personas migrantes y asociaciones de acción*

*arrazista erabiliz eta jazarpen kanpainak egitera gonbidatuz, eta orokorrean, herritarren artean asaldura giroa sortuz.*

*Hori dela eta, honako hau ERAKUNDE ADIERAZPEN hau adierazten du Donostiako Udalak:*

- *Donostian gertatu diren ekintza xenofoboen aurkako arbuioa irmoki erakutsi nahi du, baita aurrerago ildo beretik salatu litezkeenen aurkakoa ere.*

- *Konpromezua hartzen du, Donostiako Udalaren zurrumurruen aurkako estrategiaren helburuak betetzearen aldeko lana indartzeko".*

=========================================

*social de la ciudad, utilizando terminología racista, invitando a realizar campañas de persecución y creando un clima de agitación en la población.*

*Es por ello que el Ayuntamiento de San Sebastián realiza la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL:*

- *El Ayuntamiento de San Sebastián muestra su firme rechazo a las actos xenófobos que se han producido en la ciudad y a los que se pudieran producir en la misma en el futuro.*

- *El Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a reforzar el trabajo a favor del cumplimiento de los objetivos de la estrategia antirrumores del Ayuntamiento de San Sebastián".*

=========================================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**